

Enpleguaren Behin-behinekotasuna Murrizteko 20/2021 Legetik eratorritako Egonkortzeko Prozesua

Merezimenduen behin betiko balorazioa eta funtzionario izateko proposamena

Plaza: Informatika Teknikaria –Administrazio Bereziko Eskalakoa, Azpieskala Teknikoa, Erdi Mailako Teknikarien klasekoa, A2 sailkapen taldekoa–.

Aipatu plaza lehiaketa-bidez betetzeko hautaketa-prozesua deitu zen iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdien barnean, betiere 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien arabera (esp.: OP01/2022-INFORTE).

Epaimahai kalifikatzaileak, 2024ko otsailaren 16ko saioan, merezimenduen behin betiko balorazioa eta azken kalifikazioak onartuta, eta, erreklamazioak eta gora jotzeko errekursoak kontuan hartuta, erabaki zuen puntuaziorik handiena zuen izangai Juan Manuel Garmendia Guzman proposatzea deialdiaren xede zen plaza funtzionario gisa betetzeko, eta hala bideratu zen egiazki.

Haren eszedentzia betetzeko (2024AKFI0015 espedientea), berriz, epaimahaiak proposatutako bigarren hautagaia hartu zen ondoren deialdiaren xede den lanpostua karrerako funtzionario gisa betetzeko, zegokion praktikaldi edo probaldia behin gaingiduta (2026AKFI0001): Judit Muñoz Manías.

Azken honen eszedentzia-eskaera 2026-1408 erregistro-zenbakiarekin jasota, proposamena da epaimahaiak puntuazio-hurrenkeran hurrena proposatutako izangaia hartzea karrerako funtzionario izendatzeko 20/2021 Legearen 6. eta 8. Xedapen Gehigarrien ondorioz deitu zen Informatika Teknikari (A2) lanpostua betetzeko: Garbiñe Alcorta Arenaza.

Proposatutako azken hautagai honek deialdiko oinarrietan eskatzen diren hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzen honako egiaztagiri hauek aurkeztu beharko ditu Udaleko Erregistroan, gehienez ere 20 egun balioduneko epean –jakinarazpen hau Oñatiko udalaren WEB orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita–:

1. Kargu publikoak betetzeko ezgaituta ez dagoela eta diziplina-espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik kendu ez dutela dioen zinpeko adierazpena.
2. Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun-arrazoien batean sartuta ez egotearen zinpeko adierazpena.

(Lehenengo bi puntu hauetan jasotako zinpeko aitorpenerako, jakinarazpen honi eranstean zaion eredia erabili daiteke).

3. Oinarrien arabera dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzeko, kontratua egin aurretik Oñatiko Udaleko mediku-zerbitzuak behar diren osasun-azterketa eta -frogak egingo dizkio.

Aurreko edozein kasutan, uko egiten badu edo ez dela gai edo gaitasun mugatuak dituela ondorioztatzen bada, proposatutako hautagaiak kontratatua izateko eskubideak galduko ditu.

2024ko martxoaren 4an Oñatiko Udaleko Negoziazio Mahaian hartutako akordioa kontuan izanda, Garbiñe Alcorta Arenaza jaunak ez du oinarrietan zehaztutako praktikaldia gauzatu beharko.

Oñatin, sinadura elektronikoaren datan
Alkateak

Oñatiko Udala
Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 • onati.eus



EKS | CSV: ESKUda3727ba-7610-4731-a049-8b2e49a04fea

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026AKFI0001-izendapen proposamena/propuesta de designación (ALCORTA,ARENAZA, I

Digitalki sinatua:



Izaro Elorza Arregi

Alkatea

Data: 2026/03/05 16:03:06